# 2015 2019 LEGEALDIRAKO KUDEAKETA PLANA

# PLAN DE GESTIÓN 2015 2019 PARA LA LEGISLATURA



Beasaingo Udala

beasain eraikiz

# AURKIBIDEA ÍNDICE


03 SARRERA / INTRODUCCIÓN
05 GURE XEDEA / NUESTRA MISIÓN
06 GURE IKUSPEGIA / NUESTRA VISIÓN
07 GURE BALIOAK / NUESTROS VALORES
08 UDAL EGITURA BERRIA / NUEVA ESTRUCTURA
08 ANTOLAKUNTZA / ORGANIZACIÓN
10 HERRITARRAK / CIUDADANÍA
12 LURRALDEA / TERRITORIO
14 KUDEAKETA PLANA / PLAN DE GESTIÓN
15 ZER EGINGO DUGU? / ¿QUÉ VAMOS A HACER?


beasain
*eraikiz*

# SARRERA INTRODUCCIÓN

Udalak, Beasaini eta beasaindarrei balio erantsia emango dien administrazioa izan behar du eta erronka hori bere egin behar du. Kalitatezko zerbitzuak eskaintzeaz gain, egitasmo desberdinak elkarlanean garatu behar ditu eta modu aktiboan parte hartu behar du jarduera ekonomikoarekin, enpleguarekin, kultur bizitasunarekin edota gizarteratzearekin zerikusia duten proiektuetan, proiektu partekatu bat osatze aldera.

Horretarako, eta etorkizuneko erronkei aurre egin eta proiektu desberdinak gauzatzeko, **2015-2019 legealdirako Kudeaketa Plana** garatu du Udalak. Era berean, kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko eta kudeaketa plana aurrera eramaten laguntzeko antolaketa egitura berria ere txertatu du. Prozesua alkatetzak gidatu du, politikari eta teknikoez osatutako koordinazio taldearen parte hartze eta udalaren arlo guztietako arduradun politiko eta teknikoen laguntzarekin.

*El Ayuntamiento debe ser una administración que aporte valor añadido tanto a Beasain como a las mujeres y hombres que viven en el municipio y debe hacer suyo ese reto. Además de ofrecer servicios de calidad, debe desarrollar de manera conjunta diversas iniciativas y participar activamente en proyectos relacionados con la actividad económiva, el empleo, la cultura y la integración social; todo ello, de cara a construir un proyecto compartido.*

*Para ello y con el objeto de hacer frente a futuros retos y llevar a cabo diversos proyectos, el Ayuntamiento ha elaborado este **Plan de Gestión para la legislatura 2015-2019**. A su vez ha implantado un nuevo esquema organizativo con objeto de mejorar la eficiencia en la gestión y ayudar en la ejecución del Plan de Legislatura. Este proceso liderado por Alcaldía, ha contado con la participación y ayuda de un grupo de coordinación formado por personal político y técnico, así como responsables de todas las áreas municipales.*






Gauzak horrela, Udala 3 arlotan banatu da: Antolakuntza, Herritarrak eta Lurraldea. Kudeaketa Planak, berriz, **estrategikotzat jotzen diren ardatzak, helburuak eta garatu beharreko ekintzak jasotzen ditu**. Lanerako tresna baliagarria da beraz, eta datozen urteetan udal jardunaren ibilbide orria izango da. Hainbat onura ekartzeaz gain, besteak beste, sail bakoitzeko helburuak ezarri eta lehenesten ditu, udal aurrekontuak erraztasun handiagoz egiteko aukera ematen du eta ekintzen betetze maila neurtzea ere ahalbidetzen du. Horrez gain, kudeaketa publikoan gardentasunaren eta parte hartzearen adierazgarri ere bada.

Gure herriaren gizarte, kultura, kirol eta ekonomiaren garapena planifikatzeko beharrari erantzuten dio Kudeaketa Plan honek. Baina Kudeaketa Plana ez da datozen urteetan aurrera eramango diren ekintzen zerrenda soil bat, zerbait gehiago da. Zer garen eta zer izan nahi dugun ikuspegiari erantzuten dion dokumentu bizia eta aldagarria da, momentuko testuinguru, egoera eta beharretara egokituko den tresna, hain zuzen.

*Así las cosas, se ha organizado el Ayuntamiento en 3 grandes áreas: Organización, Ciudadanía y Territorio. El Plan de Gestión recoge los principales ejes de trabajo considerados estratégicos, los objetivos que se persiguen y las actuaciones que se llevarán a cabo. Por ello, es un instrumento de trabajo muy importante para la gestión, ya que define la hoja de ruta a seguir por el Ayuntamiento los próximos años. Tiene múltiples beneficios, entre otros, establece y prioriza los objetivos de cada área, facilita la elaboración de los presupuestos municipales y sirve para medir el grado de ejecución de las actuaciones. Además, es un signo de transparencia y participación en la gestión pública.*

*Este Plan de Gestión para la legislatura responde a la necesidad de planificar el desarrollo de la sociedad, la cultura, el deporte y la economía. No es una mera recopilación de actuaciones que se van a llevar a cabo los próximos años, es algo más que eso. Es un documento vivo que responde a la visión de lo que somos y lo que queremos llegar a ser, pudiendo variar adaptándose al entorno, la situación y las necesidades del momento.*

# **GURE XEDEA** NUESTRA MISIÓN

**Etorkizuneko Beasain eraikitzeko beharrezko baldintzak sortzea** da gure helburu nagusia, udal baliabideak eraginkortasunez kudeatuz, planifikazio ikuspegiaz baliatuta eta momentu oro, herritarren zerbitzura, gardentasunez eta gertutasunez lan eginez.

*Nuestro principal objetivo **es crear las condiciones necesarias para construir un Beasain para el futuro**, gestionando los recursos municipales con eficacia y planificación y trabajando, en todo momento, al servicio de la ciudadanía, de forma transparen**te y cercana.***



# **GURE IKUSPEGIA** NUESTRA VISIÓN

Legealdi honetan, herri eroso eta atseginagoa eraiki nahi dugu horretarako beharrezkoa den **garapen sozioekonomiko iraunkorra** bultzatuz. Ingurune naturala babestuko dugu, kultura eta euskara sustatuko ditugu eta heziketarako balioak dituen eta aniztasunarekiko irekia den herria eraikiko dugu, herritar ororen bizi kalitatea hobetzeko. Herritarren ekintzailetasuna eta parte-hartzea ere sustatuko ditugu berdintasun ikuspegia garatuz.

*Durante la presente legislatura queremos hacer de Beasain un municipio más cómodo y más amable, impulsando para ello el* ***desarrollo socioeconómico sostenible*** *necesario. Protegeremos el entorno natural, fomentaremos la cultura y el euskera y construiremos un municipio fundamentado en valores educativos, que sea respetuoso con la diversidad, con objeto de mejorar la calidad de vida de toda la ciudadanía. También fomentaremos la participación ciudadana y el emprendizaje, trabajando a favor de una sociedad más igualitaria.*



# **GURE BALIOAK** NUESTROS VALORES

**Pertsonak** dira gure lanaren, kudeaketaren eta proiektuaren **jomuga**.

*Las **personas** son el **principal eje** de nuestro trabajo, nuestra gestión y nuestro proyecto.*

**Oinarri horretatik abiatuta, gure nortasun eta lan egiteko ereduaren adierazle bihurtuko ditugu jarraian azaldutako balioak:**

*Partiendo de esta base, haremos nuestros los siguientes valores:*

- **Gardentasuna** *Transparencia*
- **Erantzukizuna** *Responsabilidad*
- **Ilusioa** *Ilusión*
- **Inplikazioa** *Implicación*
- **Gertutasuna** *Cercanía*
- **Lidergoa** *Liderazgo*
- **Elkarlana** *Colaboración*
- **Zintzotasuna** *Honradez*
- **Bedintasuna** *Igualdad*



# KUDEAKETAREN ERAGINKORTASUNA HOBETZEKO UDAL EGITURA BERRIA

## NUEVA ORGANIZACIÓN MUNICIPAL PARA MEJORAR LA EFICIENCIA EN LA GESTIÓN

Antolakuntza: Gizartea nabarmen aldatu da, hein handi batean, zientziaren eta teknologiaren garapenaren harira, eta etengabe egokitu behar dugu testuinguru aldakor horretara, guk ere herritarren behar, nahi eta eskariei erantzunik eraginkorrena emateko.

Egungo joerekin bat etorriz, Udalak erakunde modernoa, egokitzeko gaitasuna duena, proaktiboa, irekia eta hurbilerraza izan behar du. Kalitatezko antolakuntzak, prozesuen diseinu eta kudeaketa herritarren beharretara egokitzea eta herritarren zerbitzura jartzea ahalbidetuko du. Azken batean, beasaindarrei erraztasunak eman eta laguntza eskaintzea da gure helburua.

*La sociedad ha evolucionado notablemente, en gran medida, a raiz del desarrollo de la ciencia y la tecnología. Por ello, debemos adaptarnos a los constantes cambios para responder, en todo momento, de manera eficaz a las necesidades, expectativas y peticiones de la población beasaindarra.*

*Las actuales tendencias exigen que el Ayuntamiento sea una institución moderna, adaptable, flexible, proactiva y cercana. En definitiva, una organización de calidad a disposición de la ciudadanía, que facilite la adaptación de los procesos de diseño y gestión a sus necesidades. Es objetivo del Ayuntamiento dar facilidades y responder a las necesidades de la ciudadanía.*



| **ANTOLAKUNTZA** | *ORGANIZACION* |
| --- | --- |
| GIZA BALIABIDEAK | *RECURSOS HUMANOS* |
| HERRITARREN ARRETA ETA PARTAIDETZA | *ATENCIÓN CIUDADANA Y PARTICIPACIÓN* |
| OGASUNA | *HACIENDA* |
| BARNE ANTOLAKUNTZA | *ORGANIZACIÓN INTERNA* |
| GOBERNU ONA ETA GARDENTASUNA | *BUEN GOBIERNO Y TRANSPARENCIA* |
| GARAPEN POLITIKAK | *POLÍTICAS DE DESARROLLO* |
| EKONOMIA ETA ENPLEGUA | *ECONOMÍA Y EMPLEO* |
| ZERBITZU-JARDUERAK | *SERVICIOS* |

* 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (Euskal Herriko Aginaritzaren Aldizkaria 2016ko apirilaren 14a)
*Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi (Boletín Oficial del País Vasco 14 de abril del 2016)*



# KUDEAKETAREN ERAGINKORTASUNA HOBETZEKO UDAL EGITURA BERRIA
## NUEVA ORGANIZACIÓN MUNICIPAL PARA MEJORAR LA EFICIENCIA EN LA GESTIÓN

Herritarren arloak, beasaindarren ongizatea bermatu eta hobetzeari emango dio lehentasuna, pertsonen aldeko apustu argia eginez, Udalarentzat, pertsonak aintzakotzat hartzea delako helburu nagusia. Horretarako, gizarte-politikak bultzatuko ditugu, adin edota egoera ezberdinak albo batera utzita, ongizatea modu orekatuan banatuko duen eta berdintasuna ipar-orratz izango duen gizartea eraikitzeko.

Era berean, lanak pertsona duintzen duela ulertuta, enplegua sortzea lehenetsiko dugu, sektore ekonomiko berriak indartuz, udalerriko prestakuntza-zentroak bultzatuz eta herriko merkataritza, ostalaritza eta enpresa sarea sustatuz. Pertsonaren garapen integrala ahalbidetzeko ere, kultur eta kirol jarduerak dinamizatuko ditugu eta zerbitzu eskaintza hobetuko dugu.

*El área de Ciudadanía tiene como principal prioridad, garantizar y mejorar el bienestar de la población beasaindarra, con un claro compromiso con las personas, ya que éstas son el objetivo y el eje principal de la actividad municipal. Para ello, impulsaremos políticas sociales, al margen de la condición social o la edad de cada persona, con el objeto de construir una sociedad más equitativa, basada en la igualdad, en la que el bienestar sea distribuido de forma equilibrada.*

*Asimismo, teniendo en cuenta que el trabajo es fundamental en el desarrollo de la persona, priorizaremos la creación de empleo, fortaleciendo nuevos sectores económicos, impulsando los centros de preparación y fomentando el comercio, la hostelería y la red empresarial del municipio. Al mismo tiempo, dinamizaremos la actividad cultural y deportiva del municipio y mejoraremos los servicios que se ofrecen a la ciudadanía.*



# **KUDEAKETAREN ERAGINKORTASUNA HOBETZEKO UDAL EGITURA BERRIA**
# NUEVA ORGANIZACIÓN MUNICIPAL PARA MEJORAR LA EFICIENCIA EN LA GESTIÓN



| **HERRITARRAK** | *CIUDADANÍA* |
| --- | --- |
| GIZARTE ONGIZATEA ETA ZERBITZUAK | *BIENESTAR SOCIAL Y SERVICIOS* |
| BIZIKIDETZA HARREMANAK | *CONVIVENCIA* |
| BERDINTASUN ETA GIZARTERATZE POLITIKAK | *POLÍTICAS DE IGUALDAD E INTEGRACIÓN SOCIAL* |
| UDALTZAINGOA ETA HERRITARREN SEGURTASUNA | *POLICÍA MUNICIPAL Y SEGURIDAD CIUDADANA* |
| BABES ZIBILA, LARRIALDIAK ETA SUTEEN PREBENTZIOA | *DEFENSA CIVIL, EMERGENCIAS Y PREVENCIÓN DE INCENDIOS* |
| KULTURA, EUSKARA ETA AISIALDIA | *CULTURA, EUSKERA Y OCIO* |
| GAZTERIA ETA HEZKUNTZA | *EDUCACIÓN Y JUVENTUD* |
| KIROLA | *DEPORTE* |
| OSASUN PUBLIKOA | *SALUD PÚBLICA* |
| ONDARE HISTORIKOA | *PATRIMONIO HISTÓTICO* |
| ERAIKIN PUBLIKO ETA TITULARTASUN PUBLIKOKO ZERBITZU, EKIPAMENDU ETA INSTALAZIOAK | *SERVICIOS, EQUIPAMIENTOS E INSTALACIONES DE TITULARIDAD PÚBLICA* |
| PERTSONA ERABILTZAILE ETA KONTSUMITZAILEEN DEFENTSA ETA BABESA | *DEFENSA Y PROTECCIÓN DE PERSONAS USUARIAS Y CONSUMIDORAS* |
| TOKIKO TURISMO ETA MERKATARITZA | *COMERCIO Y TURISMO LOCAL* |

* 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
(Euskal Herriko Aginaritzaren Aldizkaria 2016ko apirilaren 14a)
*Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi*
*(Boletín Oficial del País Vasco 14 de abril del 2016)*



## LURRALDEA
## TERRITORIO

Lurralde arloak gai ezberdin askoren gaineko erantzukizuna dauka, hala nola, ingurumena, irisgarritasuna, hirigintza edota etxebizitza politika. Kontuan hartzekoa da, gainera, lurraldea oinarrizkoa dela herritarron eguneroko bizitzarako, bizitza hori, ezinbestean, ingurune fisiko, lurralde, espazio eta herri batean gauzatzen dugulako, alegia.

Beasain, herri atseginagoa, irisgarriagoa, jasangarriagoa eta herritarren beharrei egokitutakoa izatea nahi dugu. Horregatik, gobernu taldearen erabakiek, eragin handia eta nabarmena izango dute herritarren bizi-kalitatearen hobekuntzan.

*El área de Territorio engloba una gran variedad de aspectos, entre otros, medioambiente, urbanismo, política de vivienda o accesibilidad. También hay que tener en cuenta que el territorio es pieza clave para el desarrollo de las personas que lo habitan, ya que nos desenvolvemos en un entorno físico, un espacio y un municipio.*

*Queremos que Beasain sea un municipio más amable, accesible, sostenible y adaptado a las necesidades de la población beasaindarra. Por ello, todas las decisiones del equipo de gobierno irán dirigidas a la mejora directa y sustancial de la calidad de vida de las personas.*



| **LURRALDEA** | *TERRITORIO* |
|---|---|
| HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA | *URBANISMO Y VIVIENDA* |
| HIRI MANTENUA | *MANTENIMIENTO MUNICIPAL* |
| MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA | *MOVILIDAD Y ACCESIBILIDAD* |
| INGURUMENA ETA JASANGARRITASUNA | *MEDIOAMBIENTE Y SOSTENIBILIDAD* |
| LANDA INGURUA | *ENTORNO RURAL* |
| UDAL LURSAIL ONDAREA | *PATRIMONIO MUNICIPAL DEL SUELO* |
| URAREN ZIKLO INTEGRALAREN ZERBITZUAK | *SERVICIOS DEL CICLO INTEGRAL DEL AGUA* |
| HILERRIA ETA HILETA ZERBITZUAK | *CEMENTERIO Y SERVICIOS FÚNEBRES* |

* 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (Euskal Herriko Aginaritzaren Aldizkaria 2016ko apirilaren 14a)
*Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi (Boletín Oficial del País Vasco 14 de abril del 2016)*



# KUDEAKETA PLANA: ARDATZ ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK
## PLAN DE GESTIÓN: EJES Y OBJETIVOS ESTRATÉGICOS

**Udala herritarren zerbitzura...**

1. Antolaketa-egitura hobetu eta egokitzea
2. Administrazio elektronikoa berritzea
3. Jardun publikoan gobernamendu ona, administrazio zuzena eta etika sustatzea

*El Ayuntamiento al servicio de la ciudadanía...*

1. *Mejorar y adaptar la estructura organizativa*
2. *Renovar la administración electrónica*
3. *Fomentar el buen gobierno, la buena administración y la ética en el ejercicio público*

**Heziketarako balioak dituen herri kohesionatu, parte hartzaile eta dinamikoa...**

1. Herritarren ongizatea bermatzea gizartean esku hartzeko egitasmoak indartuz
2. Herritarren arteko bizikidetza sustatzea
3. Herritarren parte hartze aktiboa garatzea
4. Udal ekipamenduak hobetzea
5. Udalerrian euskararen erabilera sendotzea
6. Herritarren segurtasuna bermatzea
7. Barne merkataritza eta tokiko turismoa sustatzea

*Un pueblo cohesionado, participativo y dinámico fundamentado en valores educativos...*

1. *Garantizar el bienestar de la población, impulsando iniciativas para actuar en la sociedad*
2. *Impulsar la convivencia entre la ciudadanía*
3. *Desarrollar la participación activa de las personas*
4. *Mejorar los equipamientos municipales*
5. *Fortalecer el uso del euskera en el municipio*
6. *Garantizar la seguridad ciudadana*
7. *Fomentar el comercio y el turismo local*

**Herri erosoagoa, atseginagoa, jasangarriagoa eta herritarrei egokitutakoa...**

1. Gizartearen eta ekonomiaren garapena sustatzea
2. Herri irisgarria eta zaindua eskaintzea, beharrezkoak diren azpiegitura eta hornidurekin
3. Udalerria antolatzea
4. Udal ondarea kudeatzea
5. Beasain jasangarriagoa egitea

*Un pueblo, más cómodo, más amable, más sostenible y adaptado a la ciudadanía...*

1. Fomentar el desarrollo social y económico
2. Ofrecer un municipio accesible y cuidado, con las infraestructuras y los abastecimientos necesarios
3. Ordenar el territorio municipal
4. Gestionar el patrimonio municipal
5. Crear un municipio más sostenible

## Udala herritarren zerbitzura…
El Ayuntamiento al servicio de la ciudadanía…

| 1. ANTOLAKETA-EGITURA HOBETU ETA EGOKITZEA | *1. MEJORAR Y ADAPTAR LA ESTRUCTURA ORGANIZATIVA* |
|---|---|
| Udal antolakuntza garai berrietara egokitu, gardentasun, eraginkortasun, zeharkakotasun eta arrazionaltasun printzipioei jarraituta. | *Adaptar la organización municipal a los nuevos tiempos, siguiendo los principios de la transparencia, la eficiencia, la racionalidad y la transversalidad* |
| Udal langileen belaunaldi-errelebo egokia kudeatzeko Plana diseinatu | *Diseñar un Plan para una adecuada gestión del relevo generacional del personal del Ayuntamiento* |
| Erakunde osoan euskara lan hizkuntza izateko urratsak eman | *Dar pasos para que el euskera sea el idioma de trabajo en toda la institución* |
| Udal langileentzako Formazio Plana diseinatu, langileak direlako erakundearen baliorik nagusiena | *Diseñar un Plan de Formación para el personal municipal, dado que las personas son el mayor valor de nuestro Ayuntamiento* |
| Irudi korporatiboa gaurkotu erakundearen egitura berriarekin bat egin dezan | *Actualizar la imagen corporativa para que guarde relación con la nueva organización municipal* |
| iGunearen kudeaketa telefonikoan adierazleak jarri eta zerbitzuak eskaini, 010 ezarketaren bitartez, bulegora joan gabe, herritarrek zenbait izapide egiteko aukera izan dezaten | *Establecer indicadores en la gestión telefónica del iGunea y ofrecer servicios a través del 010, para que, sin necesidad de acudir a la oficina, se puedan realizar algunos trámites* |
| Tramiteen eskuliburua diseinatu herritarren arretarako zerbitzu integrala ezartzeko | *Diseñar un manual de trámites para establecer un servicio de atención ciudadana integral* |

**Udala herritarren zerbitzura…**
El Ayuntamiento al servicio de la ciudadanía…

## 2. ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA BERRITZEA

Udalaren web orria berritu, herritarrekin harremanetan jartzeko eta informazioa jasotzeko komunikazio bide eraginkor eta erabilerraza izan dadin

Zerbitzu elektronikoen eskaintza zabaldu herritarrek elektronikoki tramite gehiago egiteko aukera izan dezaten

Udalarekin harremanak modu elektronikoan burutzeko beharrezkoak diren egokitzapenak egin

Foru Aldundiarekin hitzarmena sinatu pasahitza operatiboa erabiltzeko

Sinadura elektronikoaren erabilera areagotu

Faktura on sistema IZFEra aldatu hornitzaileei fakturazio sistema errazteko

Bideoakta sistema ezarri udalean hartzen diren erabakiak eta lantzen diren gaiak herritarrei ezagutarazteko




## *2. RENOVAR LA ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA*

*Renovar la página web del Ayuntamiento para que sea un medio de comunicación, información y de contacto con la ciudadanía eficaz y fácil de usar*

*Ampliar la oferta de servicios electrónicos para que las personas puedan hacer más trámites electrónicamente*

*Realizar las adaptaciones necesarias para que la ciudadanía pueda ponerse en contacto con el Ayuntamiento de forma electrónica*

*Firmar un convenio con la Diputación Foral para utilizar la contraseña operativa*

*Aumentar el uso de la firma electrónica*

*Cambiar a IZFE el sistema de Faktura on, con objeto de facilitar el sistema de facturación a las empresas proveedoras*

*Establecer el sistema de Videoacta para dar a conocer a la población las decisiones que se toman y los temas que se tratan en el Ayuntamiento*

## Udala herritarren zerbitzura…
El Ayuntamiento al servicio de la ciudadanía…

### 3. JARDUN PUBLIKOAN GOBERNAMENDU ONA, ADMINISTRAZIO ZUZENA ETA ETIKA SUSTATZEA

Gardentasunaren ataria garatu herritarrek udal kudeaketari buruzko informazio guztia modu zuzen eta errazean jaso dezaten

Parte-hartze prozesuak arautu eta estrategia bat definitu partaidetza hori eraginkorra eta orokortua izan dadin



### *3. FOMENTAR EL BUEN GOBIERNO, LA BUENA ADMINISTRACIÓN Y LA ÉTICA EN EL ÁMBITO PÚBLICO*

*Desarrollar el portal de transparencia para que la ciudadanía obtenga de forma sencilla y directa toda la información relacionada con la gestión municipal*

*Regular los procesos de participación ciudadana y establecer una estrategia a fin de que estos sean eficaces, eficientes y generalizados*

**Heziketarako balioak dituen herri kohesionatu, parte hartzaile eta dinamikoa…**
Un pueblo cohesionado, participativo y dinámico fundamentado en valores educativos…

| 1. HERRITARREN ONGIZATEA BERMATZEA, GIZARTEAN ESKU HARTZEKO EGITASMOAK INDARTUZ | *1. GARANTIZAR EL BIENESTAR DE LA POBLACIÓN, IMPULSANDO INICIATIVAS PARA ACTUAR EN LA SOCIEDAD* |
|---|---|
| Gizarte Zerbitzuen gida egin Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, herritar orok eskura dituen zerbitzuen, prozeduren eta baldintzen berri izan dezan | *Elaborar la guía de Servicios Sociales, en colaboración con la Diputación Foral de Gipuzkoa, para que la ciudadanía conozca los servicios que están a su disposición, así como los procedimientos y las condiciones* |
| Gizarte Zerbitzuen mapa egin Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera | *Elaborar el mapa de Servicios Sociales junto con la Diputación Foral de Gipuzkoa* |
| Arreta programak eta laguntza ekonomikoak aztertu herritarren beharrei modurik egokienean erantzuteko | *Estudiar los programas de atención y las ayudas económicas que se prestan para poder responder mejor a las necesidades de la ciudadanía* |
| Koordinazio soziosanitarioko ekintzak gauzatu hala nola, prebentziorako programak, Alzheimer-zita, Ondo Ibili- Ondo izan, Osasun Foroa… | *Llevar a cabo acciones socio sanitarias de manera coordinada, como por ejemplo: programas de prevención, Cita-Alzheimer, Ondo Ibili-Ondo Izan, Foro sobre la Salud…* |
| Zerbitzu berriak eskaintzeko proiektuak diseinatu sortu litezkeen behar berriei erantzuteko | *Diseñar proyectos para poder ofrecer nuevos servicios que den respuesta a posibles necesidades futuras* |
| Kirolaren zabalkunde plana egin | *Realizar un Plan para impulsar la práctica deportiva* |
| Kirol egokituaren elkarlan Plana garatu | *Desarrolar un Plan colectivo sobre el deporte adaptado* |
| Kirol kontsultategia sortu | *Crear una consultoría deportiva* |
| Kirol instalazioetan irisgarritasuna bermatu | *Garantizar la accesibilidad en las instalaciones deportivas* |
| Kirola gizarte-maila guztietara zabaldu | *Extender la práctica deportiva a todos los grupos sociales* |
| Emakumeak maila guztietako kirolean parte hartzeko Plana garatu | *Realizar un Plan para que la mujer participe en el deporte en todos los niveles* |
| Kirol Plana diseinatu eta garatu herriko kirol eskaintzari forma emateko | *Diseñar y desarrollar un Plan de Deporte, para dar forma a la oferta deportiva del municipio* |

**Herri kohesionatu, hezitzaile, parte hartzaile eta dinamikoa…**
Un pueblo cohesionado, educador, participativo y dinámico…

## 2. HERRITARREN ARTEKO BIZIKIDETZA SUSTATZEA

- Memoriaren lanketa egin gure herriak izan duen iragana ezagutarazteko
- Beasain Lagunkoia egitasmoa abian jarri, herritarren, eta bereziki, adinekoen parte hartzearekin, beren beharrei egokitutako herria eraikitzeko
- Bizikidetza eta normalizaziorako ekintza zein hitzaldiak antolatu Baketik elkartearen laguntzarekin herritarrei ahalik eta formazio eta ezagutza eskaintza zabalena luzatzeko
- Jatorri ezberdinetako pertsonen integraziorako Harrera Programa prestatu
- Berdintasun jarduerak gauzatu genero berdintasun ikuspegia ekintza guztietara hedatzeko eta sentsibilizazioa sustatzeko
- Herrigunearen eta auzoen arteko elkar-ezagutza garatu: Beasainmendi, Salbatore, Gudugarreta, Arriaran, Garin, Matxinbenta eta Astigarreta



## *2. IMPULSAR LA CONVIVENCIA ENTRE LA CIUDADANIA*

- *Trabajar la memoria histórica para dar conocer el pasado de nuestro municipio*
- *Poner en marcha el proyecto Beasain Lagunkoia para construir, con la participación de la ciudadanía y en especial de las personas mayores, un municipio adaptado a sus necesidades*
- *Organizar en colaboración con Baketik, acciones y conferencias que favorezcan la convivencia y la normalización y ofrezcan a la ciudadanía una amplia oferta formativa y educativa en este sentido*
- *Elaborar un Programa de Acogida para mejorar la integración de las personas de diferente origen*
- *Desarrollar acciones que ayuden a sensibilizar y promover la perspectiva de género en todos los ámbitos y actuaciones*
- *Impulsar el conocimiento mutuo del núcleo urbano y los barrios: Beasainmendi, Salbatore, Gudugarreta, Arriaran, Garin, Matxinbenta y Astigarreta*

## Herri kohesionatu, hezitzaile, parte hartzaile eta dinamikoa…
## Un pueblo cohesionado, educador, participativo y dinámico…

| 3. HERRITARREN PARTE HARTZE AKTIBOA GARATZEA (1) | *3. DESARROLLAR LA PARTICIPACIÓN ACTIVA DE LAS PERSONAS (1)* |
|---|---|
| Liburutegi zerbitzua digitalizatu herritarrek, hala nola, irakurketa-katalogoak edota irakurgai-aholkuak webgunean eskuragarri izan ditzaten | *Digitalizar el servicio de biblioteca para que la ciudadanía tenga a su disposición en la web catálogos o recomendaciones de lectura* |
| Beasaingo kultur eta industria ondarea zein ondare arkeologikoa balioan jarri. Bere erroez harro dagoen herria bultzatzeko Igartza, Murumendiko herrixka, Olaran… moduko guneak ezagutzera eman | *Poner en valor el patrimonio cultural e industrial, como el patrimonio arqueológico de Beasain, dando a conocer Igartza, Murumendi, Olaran… y así lograr un municipio que esté orgulloso de sus raíces* |
| Kultur programazioa eta sorkuntza osotasun batean kokatzeko egitarauak diseinatu. Horretarako, hitzarmen berriak sinatu edota ziklo berriak garatuko dira. Musika arloan, "Igartza Musika" eta "Igartza Beka" ditugu, azken hau, Musikenerekin sinatutako hitzarmenari esker. Dantza mailan, Beasain euskal dantzaren erreferente bihurtzeko eta dantza irakasleak formatzeko dantzan. com elkartearekin legealdirako lankidetza hitzarmena sinatu da | *Diseñar programas que aúnen la actividad cultural y creatividad. Para ello, se han firmado nuevos convenios o desarrollado nuevos ciclos. En el ámbito musical destacan "Igartza Música" y la "Beca Igartza", esta última, gracias al acuerdo firmado con Musikene. En el ámbito de la danza, el convenio de colaboración con la organización dantzan.com tiene como objeto formar al profesorado y convertir Beasain en referente de la danza tradicional.* |
| Euskara eta generoa uztartuz, partaidetza prozesu baten bitartez, kirol arloko diagnosi kualitatiboa egin | *Realizar, mediante un proceso participativo, un análisis cualitativo en el ámbito deportivo desde una perspectiva de género y de Euskera* |
| Udal Berdintasuneko Planaren diagnosia osatu | *Completar el diagnóstico del Plan de Igualdad municipal* |
| Gazteria eta gazteria jarduerak antolatu eta sustatu: Jazpana, Downhill… | *Organizar e impulsar la juventud y las actividades dirigidas a los jóvenes: Jazpana, Downhill…* |
| Elkartegintza saretzeko Foroa sustatu, herriko elkarte zein eragileek herrian duten uka ezinezko eragina norabide berean lerrokatzeko eta elkarren arteko partaidetza eta sinergiak sustatzeko | *Impulsar la creación de un Foro en el que participen todos los agentes, grupos y asociaciones del municipio, con el fin de impulsar sinergias entre ellas y dirigir, su indudable influencia y aportación a Beasain, en una misma dirección* |

## Herri kohesionatu, hezitzaile, parte hartzaile eta dinamikoa…
Un pueblo cohesionado, educador, participativo y dinámico…

### 3. HERRITARREN PARTE HARTZE AKTIBOA GARATZEA (2)

### *3. DESARROLLAR LA PARTICIPACIÓN ACTIVA DE LAS PERSONAS (2)*

| | |
|---|---|
| Emakumeen eta Gizonen berdintasunaren aldeko Ordenantza egin | *Crear una Ordenanza a favor de la igualdad de mujeres y hombres* |
| Udal Eskola Kontseiluko bileretako plangintza egin ikasturtean zehar jorratzen diren gaiak aldez aurretik landu eta denboran kokatzeko | *Planificar las reuniones de todo el curso del Consejo Escolar Municipal para poder gestionar mejor los tiempos y poder abordar y tratar con mayor antelación los temas* |
| Musika Eskolako zerbitzuen eskaintza argitaratu herritarrek ezagutu dezaten | *Dar a conocer entre la población beasaindarra los servicios que ofrece la Escuela de Música* |
| Irakurketa Erraza ekinbidea sortu irakurketa zailtasunak dituzten pertsonei beren premien araberako materialak eskaintzeko | *Impulsar la iniciativa Irakurketa Erraza para ofrecer, a aquellas personas con dificultades de comprensión lectora, materiales adaptados a sus necesidades* |
| Udal Euskaltegiko zerbitzuen eskaintza eguneratu | *Actualizar los servicios que oferta el Euskaltegi municipal* |
| Kirolean ingurugiroaren babesa bultzatu | *Impulsar el respeto al medioambiente en el deporte* |
| Eskola Kirolaren udal egitura aztertu | *Analizar la estructura municipal del deporte escolar* |
| Gure kirola babestu eta garatu | *Proteger y desarrollar nuestro deporte* |
| Kirolerako Beasain Sariak sortu | *Crear los Premios Beasain del deporte* |
| Ezkierdi pilotalekua Eskola Kirolera egokitu | *Adecuar el frontón Ezkierdi al deporte escolar* |
| Kiroletako udal instalazioen eta zerbitzuen araudi orokorra eguneratu | *Actualizar la normativa general correspondiente a las instalaciones y servicios depotivos municipales* |
| Udal kirol instalazioen publizitatearen ustiapenerako Plan bat egin | *Elaborar un Plan para la gestion de publicidad de las instalaciones deportivas municipales* |



**Herri kohesionatu, hezitzaile, parte hartzaile eta dinamikoa…**
Un pueblo cohesionado, educador, participativo y dinámico…

## 4. UDAL EKIPAMENDUAK HOBETZEA

- Liburutegiko ikasgela azpiko gunea egokitu bertako erabiltzaileentzat
- Olaran ondare industrialaren inguruko historia jaso eta ezagutzera eman, ondoren, eraikinaren biziberritze prozesurako beharrezkoak diren urratsak emateko
- Antzitzar kiroldegiko instalazioak hobetu
- Skate pistak eta paddle pistak sortu eta Loinaz eta Igartza futbol zelaietan belar artifiziala jarri



## *4. MEJORAR LOS EQUIPAMIENTOS MUNICIPALES*

- *Adecuar para las personas usuarias el espacio situado bajo la sala de estudio de la biblioteca*
- *Recopilar información sobre la historia del edificio Olaran y dar a conocer este patrimonio industrial, para después iniciar un proceso de reconversión del edificio*
- *Mejorar las instalaciones del polideportivo Antzizar*
- *Crear pistas de Skate y paddle e instalar hierba artificial en los campos de futbol Loinaz e Igartza*

**Herri kohesionatu, hezitzaile, parte hartzaile eta dinamikoa…**
Un pueblo cohesionado, educador, participativo y dinámico…

## 5. UDALERRIAN EUSKARAREN ERABILERA SENDOTZEA

Euskara sustatzeko 2014-2017 Ekintza Planaren jarraipena eta ebaluazioa egin; ondoren, datozen lau urteetarako Plan berria diseinatu eta lehentasunak ezartzeko

Mintzalagun egitasmoaren plangintza egin euskaldunen eta euskalduntze bidean dabiltzan pertsonen arteko zubiak eraikitzeko

Euskara ikastaroen eskaintza eta modulazioa aztertu eta dibertsifikatu herritarren hizkuntza premiei kalitatez eta malgutasunez erantzuteko

Udal Euskaltegiak, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum-a eredu hartuta, bere curriculum propioa eratuko du herriaren eta herritarren beharrak eta ezaugarriak kontuan hartuta




## *5. FORTALECER EL USO DEL EUSKERA EN EL MUNICIPIO*

*Hacer el seguimiento y la evaluación del Plan de Acción 2014-2017 para el fomento del euskera, para después, diseñar un nuevo Plan en el que se definan las prioridades de cara a los próximos años*

*Organizar y planificar la iniciativa Mintzalagun para construir puentes entre las personas vascoparlantes y las que están en vías de serlo*

*Analizar y diversificar la oferta y modulación de los cursos de euskera para responder con calidad y flexibilidad a las necesidades idiomáticas de la ciudadanía*

*El Euskaltegi municipal, tomando como referencia el Currículo Básico de Enseñanza de euskera (HEOC) a Personas Adultas, creará su propio currículo atendiendo a las necesidades del municipio y sus habitantes*

**Herri kohesionatu, hezitzaile, parte hartzaile eta dinamikoa…**
Un pueblo cohesionado, educador, participativo y dinámico…

## 6. HERRITARREN SEGURTASUNEAN BERMATZEA

- TAO sistema arautzen duen ordenantzaren jarraipena eta ebaluazioa egin, urtero, herritarren beharretara egokitzeko eta erabiltzaileentzako tresna baliagarria eta erraza izateko
- Mugikortasun Plana garatu herriko mugikortasun beharrak aztertzeko: garraio publikoa, txirrindua, oinezkoentzako gune eta ibilbideak…
- Autobus zerbitzua herritarren beharretara egokitzeko proposamena egin
- Eraztun berdea egitasmoa gizarteratu
- Herriko puntu beltzen azterketa egin



## *6. GARANTIZAR LA SEGURIDAD CIUDADANA*

- *Hacer el seguimiento y la evaluación de la ordenanza que regula el sistema OTA para adaptarlo, cada año, a las nuevas necesidades de la población a fin de que el sistema sea útil y fácil de usar para las personas usuarias*
- *Llevar a cabo un Plan de Movilidad para analizar las necesidades del municipio: transporte público, bicicletas, zonas y paseos para peatones…*
- *Hacer una propuesta para adaptar el servicio de autobús a las necesidades de la población*
- *Dar a conocer el proyecto del Cinturón Verde*
- *Analizar los puntos negros de nuestro municipio*

**Herri kohesionatu, hezitzaile, parte hartzaile eta dinamikoa…**
Un pueblo cohesionado, educador, participativo y dinámico…

## 7. BARNE MERKATARITZA ETA TOKIKO TURISMOA SUSTATZEA

Merkataritza Biziberritzeko Plana garatu udalerriko merkataritza sustatu eta indartzeko. Bertan, datozen urteetan burutu beharreko jarduerak jasoko dira

Baserritarren azoka dinamizatzeko Plana egin, bertako produktuak balioan jartzeko eta erosleen kontsumo ohituretan eragiteko



## *7. FOMENTAR EL COMERCIO Y EL TURISMO LOCAL*

*Llevar a cabo el Plan para la Revitalización del Comercio con el objeto de impulsar y fomentar el comercio y la hostelería local. El Plan recogerá las acciones a desarrollar en los próximos años*

*Desarrollar un Plan para dinamizar el mercado de baserritarras, así como poner en valor sus productos locales e influir en los hábitos de consumo de la población*

**Herri erosoagoa, atseginagoa, jasangarriagoa eta herritarrei egokitutakoa…**
Un pueblo más cómodo, más amable, más sostenible y adaptado a la ciudadanía…

## 1. GIZARTEAREN ETA EKONOMIAREN GARAPENA SUSTATZEA

Lurzoru industriala kalifikatu enpresa handi eta txikiak erakartzeko. Arriaran ingurua gune industrial gisa gorde

Enplegu Plana garatu formakuntza beharrak enpresekin elkarlanean aztertuz

Baratza sozialak sortu eta gizarte erabilera eman behar gehien dituzten pertsonek erabil ditzaten

Beasain indarberritzeko plana garatu kohesioa sustatuko duten espazioak sortzeko eta gure kaleei bizia emateko

Lehen Aukera programa indartu gazte langabetuen enplegagarritasuna hobetzeko eta beren laneratzea sendotzeko

Bonberia eraikina zaharberritu erabilera anitzeko eremu bilakatzeko eta zubiaren proiektua gauzatu komertzio-guneráko lotura hobetzeko eta Gipuzkoa plazako aparkalekua erdigunera gerturatzeko

Elkargune eremuak sortzeko eta herritarren arteko harremanak sustatuko dituzten espazio berriak garatzeko hirigintza ekintzak egin



## *1. IMPULSAR EL DESARROLLO SOCIAL Y ECONÓMICO*

*Calificar el suelo industrial para atraer a pequeñas y a grandes empresas. Reservar Arriaran como zona industrial*

*Desarrollar el Plan de Empleo analizando junto a las empresas sus necesidades*

*Destinar el proyecto de las huertas sociales a un uso social para que sean las personas más necesitadas quienes las utilicen*

*Desarrollar un Plan para revitalizar Beasain con calles vivas y espacios de encuentro que fomenten la cohesión social*

*Impulsar el programa Lehen Aukera para mejorar la empleabilidad de la juventud y fortalecer su acceso al mercado laboral*

*Renovar el edificio de la Bonberia para convertirlo en un espacio multiusos y llevar a cabo el proyecto del puente para mejorar la conexión con la zona comercial y acercar el parking de la Plaza Gipuzkoa al centro urbano*

*Llevar a cabo actuaciones urbanísticas que creen espacios de encuentro y fomenten las relaciones entre las personas*

**Herri erosoagoa, atseginagoa, jasangarriagoa eta herritarrei egokitutakoa…**
Un pueblo más cómodo, más amable, más sostenible y adaptado a la ciudadanía…

| 2. HERRI IRISGARRIA ETA ZAINDUA ESKAINTZEA, BEHARREZKOAK DIREN AZPIEGITURA ETA HORNIDUREKIN | *2. OFRECER UN MUNICIPIO ACCESIBLE Y CUIDADO, CON LAS INFRAESTRUCTURAS Y LOS ABASTECIMIENTOS NECESARIOS* |
|---|---|
| Garin, Arriaran, Matxinbenta, Astigarreta, Beasainmendi, Gudugarreta eta Salbatore auzoetako azpiegiturak hobetzeko Plana egin | *Elaborar un Plan para la mejora de las infraestructuras de los barrios: Garin, Arriaran, Matxinbenta Astigarreta, Beasainmendi, Gudugarreta y Salbatore* |
| Mantenu eta berritze Planak garatu, herriko bideen, espaloien eta zebrabideetako argiztapenaren hobekuntzarako eta auzoetan taxi zerbitzua ezartzeko | *Desarrollar Planes de renovación y mantenimiento para la mejora de vías, aceras y el alumbrado de los pasos peatonales e implementar el servicio de taxi en los barrios* |
| Dotazio publikoak hobetzeko Plana egin, Usurbeko aforoa handitzea aztertzeko, Loinazpe-La Salle estaltzeko edota Gaztetxe ingurua aisialdirako gune bihurtzeko | *Realizar un Plan para la mejora de las dotaciones públicas: estudio de ampliación del aforo de Usurbe, cubrición de La Salle-Loinazpe y conversión/transformación de la zona del Gaztetxe en un espacio de ocio* |
| Mantenu lanei garrantzia berezia eman, kale eta plazak txukun mantentzeko eta hiri altzari, lorategi eta parkeak behar bezala zaintzeko | *Poner especial atención en los trabajos de mantenimiento para tener limpias nuestras calles y plazas y conservar en buen estado el mobiliario urbano, los jardines y los parques* |
| Trafiko azterketaren ondorioak kontuan hartuta neurri desberdinak hartu, identifikatutako arazo edota beharrei erantzunez | *En respuesta a los resultados del análisis de tráfico realizado, se tomarán diversas medidas al respecto, para dar solución a los problemas y a las necesidades detectadas* |
| Aparkaleku kopurua handitu eta tren geltoki inguruan bizikletak uzteko gunea egokitu | *Aumentar el número de aparcamientos y acondicionar un lugar para aparcar bicicletas en la zona de la estación* |
| Musika Eskolako komunak eta garbitzaileen aldagela berritu eta biltegia egokitu | *Renovar los baños y el vestuario del personal y acondicionar el almacén de la Musika Eskola* |
| Zaraten-mapa eratu, ondoren, kutsadura akustikoa murrizteko ekimen zehatzak burutzeko | *Llevar a cabo el Mapa de Ruido para después, realizar actuaciones concretas que hagan reducir la contaminación acústica* |
| Txakurren kanpaina indartu eta txakurrentzako guneen ezarpena aztertu | *Fortalecer la campaña de perros y analizar la instalación de zonas para perros* |
| Baserri eta landa auzoetako seinaletika osatu | *Completar la señalización de los caseríos y los barrios rurales* |

**Herri erosoagoa, atseginagoa, jasangarriagoa eta herritarrei egokitutakoa…**
Un pueblo más cómodo, más amable, más sostenible y adaptado a la ciudadanía…

## 3. UDALERRIA ARAUTZEA

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berritu lur- industrialak, lur-eraikigarriak, eta herri-garapenerako eremuak zehazteko eta etorkizuneko aukera ezberdinak lantzeko

Adif eremua eskuratzeko urratsak eman herriaren etorkizuneko garapena bermatzeko eta sor daitezkeen behar eta eskaera sozioekonomikoei erantzuteko

Ingurubide berdeak sustatu, landa-bideak aprobetxatuz Beasaingo espazio naturalak lotuko dituen ibilbidea sortzeko

Nekolalde kalea eraberritu aparkaleku kopurua handitzeko

Zazpiturrieta kalean hobekuntzak egin eta igogailua eraiki bertako irisgarritasuna hobetzeko

Dolarea Parkea txukundu egun duena baino erabilera handiagoa izan dezan eta herritarrek aisialdirako eremu berri eta atsegina izan dezaten

Ezkiaga auzoko irisgarritasuna hobetu bertan igogailu bat eraikiz

Udalak jabetzan dituen etxebizitza eta lokalak kudeatu



## *3. ORDENAR EL TERRITORIO MUNICIPAL*

*Renovar el Plan General de Ordenación Urbana para ir trabajando nuevos proyectos en relación a los suelos edificables e industriales identificados, y los espacios definidos en el PGOU para el posible desarrollo del municipio*

*Ir dando pasos en la adquisición de la zona de Adif para garantizar el desarrollo futuro del municipio en respuesta a las necesidades socioeconómicas que puedan surgir*

*Promover el proyecto del "Cinturón Verde" para construir un paseo que una los espacios naturales de Beasain aprovechando sus entornos y caminos rurales*

*Renovar la calle Nekolalde para aumentar el número de aparcamientos*

*Realizar mejoras en la calle Zazpiturrieta y construir un ascensor para mejorar la accesibilidad en la zona*

*Adecentar el parque Dolarea para aumentar su uso y ofrecer a la población beasaindarra un nuevo espacio de ocio más agradable*

*Mejorar la accesibilidad en el barrio Ezkiaga con la construcción de un ascensor*

*Gestionar las viviendas y los locales de titularidad municipal*

**Herri erosoagoa, atseginagoa, jasangarriagoa eta herritarrei egokitutakoa…**
Un pueblo más cómodo, más amable, más sostenible y adaptado a la ciudadanía…

## 4. UDAL ONDAREA KUDEATZEA

- Udal etxebizitza eta lokalen azterketa eta Kudeaketa Plana egin
- Lurzoruak erosteko Plana garatu herriak izan ditzakeen beharrak ezagutzeko eta etorkizunera begira proiektu berriak garatu ahal izateko
- Egitasmo berriak martxan jartzeko lokal berrien beharra aztertu
- Zerbitzuetako Udal langileen biltegia egokitu
- Kale argiztapenean energia eraginkortasuna hobetu
- Udaletxeko energia eraginkortasuna hobetu
- Eraikinak egungo araudi elektrikora egokitu
- Erreka eta ibaietan esku hartu: sasiak kendu eta zuhaitzak txukundu



## *4. GESTIONAR EL PATRIMONIO MUNICIPAL*

- *Realizar un diagnóstico y un Plan de Gestión de las viviendas y de los locales municipales*
- *Realizar un Plan para la gestión del suelo municipal de cara a conocer las necesidades del municipio en este ámbito y así poder desarrollar nuevos proyectos en el futuro*
- *Estudiar la necesidad de adquirir nuevos locales para poner en marcha nuevas iniciativas*
- *Acondicionar el almacen del equipo municipal de servicios*
- *Mejorar la eficiencia energética del alumbrado público*
- *Mejorar la eficiencia energética de la Casa Consistorial*
- *Adaptar los edificios a la actual normativa eléctrica*
- *Intervenir en los ríos: realizar labores de desbroce y clareado del arbolado*

**Herri erosoagoa, atseginagoa, jasangarriagoa eta herritarrei egokitutakoa…**
Un pueblo más cómodo, más amable, más sostenible y adaptado a la ciudadanía…

## 5. BEASAIN JASANGARRIAGOA EGITEA

- Udal eraikinetan energia aurrezteko Plana garatu
- Bizikletaren erabilera sustatzeko Plana garatu gazteekin elkarlanean
- Ura aurrezteko irtenbide tekniko/ekonomikoak aztertu
- Agenda 21 programa berrikusi ezarritako helburuak egungo testuinguru eta beharretara egokitzeko



## *5. CREAR UN MUNICIPIO MÁS SOSTENIBLE*

- *Desarrollar un Plan para el ahorro energético en los edificios municipales*
- *Desarrollar, junto a la juventud beasaindarra, un Plan para fomentar el uso de la bicicleta*
- *Estudiar soluciones técnico/económicas para el ahorro del agua*
- *Revisar el programa Agenda 21 para ajustar y adaptar los objetivos establecidos a la situación y a las necesidades actuales*